

Asteburu gazi- gozoa herriko futbolarientzat

■ Texas Lasartearra Ligako Kopa lortu zuen Mariñori 3-0 irabaziz
■ Ostadarrek Zumaia koren aurka 1-2 galdu zuten azken minutuetan

Kopa herrian dago. Herriko taldea den Texas Lasartearrak 3-0 Mariñori irabazi zion larunbatean Oartzungo zelaian jokaturako finalean.

Partidua nahiko parekatua hasi zen. Baloia alde batetik bestera ibili zen, baina partidua hasierako minutuetan arbitroak Mariñoko jokalaria bat kaleratu zuen. Hortik aurrera, lasarteoriatarren nagusitasuna nabaria izan zen. Hala ere, bigarren zatia arte itxaron behar izan zuten lehenengo gola ikusteko. Hasi eta bost minututara lortu zuen Texasek markagailuan aurrenetik jartzea. Hortik aurrera, Texas nagusi izan zen. Bigarren gola penaltiz sartu zuten, eta hirugarrena partidua amaitzeaz zegoela.

Hiru urtez final aurrekoetan kanporatuak izan eta gero, aurten lortu dute finale-

an sartzea eta Kopa bereganatzea.

Lehia gogorra

Ostadarrek azken minutuetan galdu zuen Ohorezko Mailara igotzeko pasea. Partiduan zehar bi taldeen gogoak argi geratu ziren. Lehia biziko partidua izan zen.

Lehen zatian aurretik jartzea lortu zuen Ostadarrek Ganix Arrondok Hodei Perezek jaurtitako falta batetako erretxazea aprobetxatu ondoren. Bigarren zatian aldiz, Zumaia kok berdinu egin zuen baina berriro aurretik jartzea lortu zuen Ostadarrek, Hodei Perezek maisuki botatako falta baten ondorioz. Baina, partida amaitzeko minutu eskas falta zenean, Zumaia kok partida berdintzea lortu zuen. Honekin Ostadar taldearen ilusio guztiak zapuztuaz. •



Texaseko jokalariek ederki ospatu zuten kopako irabazi izana, Ostadarrekoek berriz, ezin izan zuten ospatu.



Aurtengo jaietan hainbat berrikuntza izango ditu Oriako Sorgin Dantzak /4-5

KIROLA / 2

Giro ederran ospatu zen larunbatean Eskola Kiroleko 3. Jaialdia Michelin



Jende ugari bildu zen Xirimirin ospatutako I. Garagadardo Azokan /6



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka



- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Telekomunikazio instalazioak (Erdi Maila)
- Fabrikazio mekanikako diseinua
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

- Mekanizazioko langilea
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarritzako zaintzetako laguntzailea

AURREMATRIKULA EPEA MAIATZAREN 31tik EKAINAREN 11ra

A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120 HERNANI
K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI

institutua@hernanibhi.com
www.hernanibhi.com



Eguraldi ederra Eskola Kirola jaialdiaren 3. edizioan

Sokatira, pala, beisbol, gizon proba, futbola, atletismoa, herri kirolak, saskibaloia, tenisa... kirol ugari aritzeko aukera izan zuten Lasarte-Oriako 7 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek.

Egun osoko jaialdia

Goizeko 09:30etik eguerdiko 13:00ak arte eta arratsaldean, 16:00etatik aurrera Michelin go kirol gunea gaztetxo ugarien hotsez bete zen Eskola Kirola jaialdiaren 3. edizioaren ospakizunetan. Kirola praktikatu eta honetaz gozatu eta disfrutatzeko aukera bat datozela argi geratu zen larunbatean Michelinen.

Gazte ugari kirolean

Michelin kirol gunea gazte eta guraso ugari bete zen. Eskola Kirola jaialdia urtetik urtera errotzen doan ekimena dugu eta horren isla parte hartzaileen kopurua izan zen.

Aurrebenjaminetan, bai LH1 eta bai LH2, adin-talde bakoitzeko 33 gazte aritu ziren.



Hainbeste praktikatzen ez diren kiroletan energia guztiak jarri zituzten.

Benjaminetan 4 talde osatu ziren, guztira 40 gazte inguru. Alebinetan ere 40 bat gaztetxo ibili ziren. Eta azkenik infatiletan eta kadeteetan, guztira 15 kirolzale aurkitu genituen.

Bazkaldu baino lehen

Goizeko ekintzei amaiera apro-

posa emateko, parte hartzaile guztien artean zozketa egin zuten antolatzaileek. Sarien artean kamisetak, coca-colak, gozokiak, eta gulak! Argi geratu zen beraz larunbateko jaialdian kirola praktikatzeko gozatu, lagun asko egin eta ederki pasa daitekeela. •



Santos Uribe Gipuzkoako txapelketan eskuratutako urrezko dominarekin.

Santos Uribek Beteranoen mailan Espainiako errekorra hautsi du

Maiatzaren 23an, Anoetan ospatutako Gipuzkoako txapelketan Santos Uribe lasarteoriatarak garaipena lortu zuen beteranoen kategorian.

Gainera, lortutako markari esker, 37:25, 5 km pista probaren Espainiako errekorra hautsi du. Orain arte, 38:09an zegoen, baina hemen-dik aurrera herriko atletaren esku geratu da markarik onena. "Proba gogorra izan zen

jasan genuen beroagatik" aipatzen du Santosek. 3 kilometrotako muga pasa eta "deseroso sentitzen hasi nintzen, baina neskatxo gazte baten atzean jarri eta aurrera egin nuen" gaineratu digu.

Estatuko errekorra eskuratzeko korritzeko gogoak piztu dizkio, eta ekainaren 13an, Gasteizen ospatuko den Euskadiko txapelketan parte hartuko du. •



Gimnastikako infantil taldea bigarren Udaberriko Torneoa

Maiatzaren 22an, gimnastikako Udaberri Torneoko bigarren saioa burutu zen Astigarragako kiroldegian. Infantilek lan ona egin eta 1. postua lortu zuten jardunaldi honetan. Hala ere, bi topaketen batura egiten denez, orokorrean 2. postua eskuratu zuten. Alebinen mailan, berriz, Landaberri taldeak orotara 11. postua lortu zuen eta Sasoeta taldeak, hogeigarrena. Entrenatzaileak oso pozik daude lortutako emaitzekin. Izan ere, gimnasta gazteek azken asteetan lan gogorra egin dute. •

Saioa Mendiluce, Iker Hernandez eta Paula Uli tenisean Gipuzkoako txapeldunak

Maiatzaren 22an, LOKEk Gipuzkoako eskolarteko banako tenis txapelketa antolatu zuen eta bertan Lasarte-Oriako gaztetxoek garaipen ugari lortu zituzten. Saioa Mendiluce eta Iker Hernandez herriarrak alebin mailako txapeldun berruak dira. Infantil nesketan ere, herrikoa den Paula Uli k lortu zuen garaipena eta honi esker, asteburu honetan Barakaldon ospatutako Euskadiko Eskolarteko kirol jokoa parte hartu du. Honetaz gain, kadete nesketan, Andrea Gonzalez lasarteoriatarra txapeldun ordea geratu zen. •



Garaipen ugari lortu zituzten lasarteoriatarak

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Iritsi dira, hemen ditugu Zabaleta auzoko jaiak



Gazteentzako, helduentzako... guztientzako jaiak prestatu dituzte aurten ere Zabaleta auzoko lagunek.

Bihar bertan hasiko dira Zabaleta Auzoko jaiak haurrentzako jolasekin eta japoniar bonbekin.

Beste urte batez, Zabaleta-ko Jai Batzordeak egitarau zabala antolatu du igandear arte. Baina, jaietako benetako protagonistak haurrak izango dira.

Egitaraua

Jaiak asteartean hasten diren arren, Teresa Sorgina ostiral arratsaldera arte ez da jaitsiko. Aurten, gainera, auzoko trikitilarien hotsen konpainiaz.

Aurretik, antzerkia eta haurrentzako merienda egongo dira. Eta, ostean, haurrentzako opari zozketa, kantu afaria *Montexio* eta *Xumela* abesbatzekin, dantza garaikideko emnaldia eta dantzaldia herri-

ko trikihots eta Hitzartu taldeekin.

Larunbatean, Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko eskoba eta mus txapelketak jokatu dira, haurrentzako aparra, antzerki saioa eta herri kirolak gurasoen laguntzaz.

Bertso txapelketa Nagusiko irabazlea, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Amaia Agirre eta Unai Muñoa lanean jarriko ditu Andoni Otamendik gaueko bertso saioan. Eta jarraian, gazteek gozatzekoa ukera izango dute rock gauean, *Sor-tuz*, *Aritz Sound System* eta talde sorpresarekin.

Igandean, auzo garbiketa txapelketa, landaberriko ikastolako dantza saioa, ohiko proba mistoa eta herri bazkaria. Bazkal ostean, toka txapelketa eta dantzaldia *Arrabots* taldearekin.

Festari amaiera emateko, Teresa sorgina agurtuko dute traka batekin.

Gora San Fermin grabaketa

Aurtengo berrikuntza, eta ume ugari bilduko dituen ziur, Pirritx, Porrotx eta Mari-motots-en *Gora Sanfermin* bidekliparen grabaketa.

Ekainaren 3an, ostegunean izango ditugu pailazoak Zabaletan eta auzoko eta herriko haurrei deialdia egiten diete grabaketan parte hartzea. "Haurrak zuriz jantziak etorri behar dira, painelu gorria, zartagia eta goilara batekin," azaldu digu Porrotxek.

Adin guztietarako jaiak antolatu dituzte beraz, Zabaletakoek. Animatu eta hurbildu azura. •

AKATSAK ZUZENTZEN

Goiegi-Ibarra BOE-n promozioa ez da oraindik ixten

Ostiraleko aldezkarian, Goiegi-Ibarra Babez Ofizialeko Etxebizitzaren promozioa izena emate epea 10 egunetan ixten zela argitaratu genuen. Izan ere, promozio horretako zozketako baldintzak GAO-n argitaratu ziren eta. Baina okerreko informazioa eskaini genuen.

Udaletik azaldu digutenez, GAO-n argitaratu den iragarpena behin behinekoa da eta orain helegite epe bat dago. Helegiterik egon ezean, behin betiko iragarpena argitaratuko litzateke eta hor-tik hamabost egunerako itxiko litzateke promozio honetako izena ematea. •

MUNTERI-AEK

Altzo Handia ezagutzeko txangoa

Munteri-AEkan goizez dauden ikasleak Altzora egin zuten txangoa maiatzaren 26an, asteazkenean.

Euskaltegian Altzoko Handiari buruz ikasi eta gero, bizi izan zen herria eta etxea hurbiletik ezagutu zuten ikasle eta irakasleak, baita pertsonaiaren bitxikeri ugari ere. •



Goiza ederra pasa zuten. Altzoko Handiaren ondoan atera zuten argazkia

OSASUNA

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia

Gipuzkoako minbizi ginekologikoak eta bularreko afektaturiko emakumeen Katxalin elkarteak hitzaldia eskainiko du ekainaren 3an, 18:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean. Gaixotasun honi buruz jakin beharreko informazioa emango dute Donostiako Institutu Onkologikoko M^a Jesus Mitxelena doktorea eta Katxalin elkarte lehendakaria den Txaro Beobidek.

Bularretako azterketa, tratamendua eta prebentzioari buruz hitz egingo dute. Izan ere, funtsezkoa da bularretako minbiziaren diagnosi goiztiarrak duen garrantziaren berri izatea eta ondo informatua egotea. •

UDAL EUSKALTEGIA

Argazki onenak saritu ziren ostegunean

Joan den ostegunean, maiatzaren 27an, Lasarte-Oriako Udal Euskaltegian II. Argazki Lehiaketaren sari banaketa ekitaldiak burutu ziren, bata goizez eta bestea arratsaldean. Arratsaldekoan, gainera, Jesus M^a Zaballos Alkatea eta Ricardo Ortega, Euskara Batzordeko lehendakaria egon ziren dominak ematen.

Ikasle talde bakoitzak bere argazkia azaldu eta ikusleen bozkan lortu behar izan zituzten azalpenarekin. *Hain hurbil, hain urrun* eta *Lasarteko eguzkiloreak* izan ziren argazki bozkatuenak. •



Saria eskuratu zuten arratsaldeko taldeak *Lasarteko eguzkiloreak* argazkiarekin.

Kontzertu ederra Brigitarretan

Jende ugari bildu zen ostiral arratsaldean Brigiden komentuan Arimaz kamera orkestrak eskainitako kontzertuaz gozatzeko.

Kepa Martinez de Albenizen zuzendaritzapean kontzertu paregabea eskaini zuten Arimaz Kamera orkestrako kideek.

Bi zati ezberdin

Danok Kide elkarteak antolatutako Musika Topaketan V. edizioako saioan, Tolosako Musika Eskolak duela hamar urte sortutako orkestrak hasieratik publikoaren arreta bereganatu zuten.

Egile atzeritarren lanak eskaini zituen orkestrak lehengo zatian, hala nola, Tomaso Albinoni eta Pergolesirenak.



Arimaz kamera orkestra Brigitarren kaperan izan genituen ostiralean

Bigarren zatian, aldiz, ezohizkoak diren euskal egileen lanak entzun ziren Brigitarren kaperan. Hala nola, Arambururen *Txisturako kontzertu barrokoa*.

Amaia Arostegi tolosarra flautarekin eta Iñaki Letamendia Ormaiztegiarra txistuarekin haien maisutasuna erakutsi zuten bakarlarri moduan. •

Sorgin dantza, gero eta jendetsuago

■ Askoren ustez, zaindu behar den herriko ondasun kulturala da ■ Duela 150 bat urte Bergaratik ekarri zutela uste da ■ Dantza ikasteko eta gogoratzeako saioak ekainaren 8an hasiko dira



Ostiralen emanabiko prentsaurrekoan saildu zituzten aurtengo Sorgin Dantzako berrikuntzak.

eta inaharierako festa eta dant-
zekin lotzen dute adituak. Mailu
Aurtunen ustez, aurreko mende-
tako bizimoduan kokatzen bage-
la izango zen istilu eta
eskandalua. Transgesio puntua
ere badu, Josu Agirretxerren
guzte eta helduek dantzatzeko
dute eta San Pedro jaietako
elementu garrantzitsuenetari-
koa ere bihurtu da.

Josu Agirretxe Tximua elkar-
teko kideak azaldu digu nola
pasatu zituen gero lekukoa Tra-
du horren, "Inude eta bat egiten
ere ikusi izan ditugu paperak
zozak guretzat, ez zela inondik
nahikoa lagun biltzen. Beraz,
indarra zuzen eta ondo antze-
latuko zuten talde batera jozea
pentsatu genuen; Takuen euska-

tan, baina Donostiatik elkaritako
zeibat zen, ez zen betakoa, eta
suen genuen, zergatik ez bulitza
herriko dantza bat?"
Geroztik asko ugaritu da
partehartzaileen kopurua, haur
guzte eta helduek dantzatzeko
dute eta San Pedro jaietako
elementu garrantzitsuenetari-
koa ere bihurtu da.

Josu Agirretxe Tximua elkar-
teko kideak azaldu digu nola
pasatu zituen gero lekukoa Tra-
du horren, "Inude eta bat egiten
ere ikusi izan ditugu paperak
zozak guretzat, ez zela inondik
nahikoa lagun biltzen. Beraz,
indarra zuzen eta ondo antze-
latuko zuten talde batera jozea
pentsatu genuen; Takuen euska-

tan, baina Donostiatik elkaritako
zeibat zen, ez zen betakoa, eta
suen genuen, zergatik ez bulitza
herriko dantza bat?"
Geroztik asko ugaritu da
partehartzaileen kopurua, haur
guzte eta helduek dantzatzeko
dute eta San Pedro jaietako
elementu garrantzitsuenetari-
koa ere bihurtu da.

Gero eta gehiago dira San Pedrotako Sorgin Dantzan
parte hartzen dutenak. Aurtenean ere, seguruenik 200
lagunekin gora elkartuko dira Oría auzoan ekainaren
26an erdigeruna dantzan joateko eta jaiak modu alaiari
hasteko. Gazteboak ere gero eta gehiago dira, aurtenean
lehentasuna izango dute gainera, eta herriaren
"harribitxi" honen etorkizuna ziurtatuta dago. Dantza
finkatu eta egonkortu da Takunek 1994an
antolaketari heldu zionetik. Aurtenean etsegiak hiltzen
8an hasiko dira astearte eta ostegunetan arratsaldeko
Betan, Landaberri BHI atzeko aldean.

JOSU ALTXUNA

Orriako Sorgin Dantzaz
mintzatu gara. Felix
Telleria dantzaldiko
dute. Felix Telleria berak aitortu
Sorgin jaiaren sortzaileetako
baten da. Mailu Anitri Takuen
ekaitako ordezkariekin, Sorgin
dantzak badauzka ezaugarri
esinguratsuek, bat eta lehenen-
goa Oría auzoko dda. Besaldu,
ekien eta, beluandiz bala-
naldi eusi diola dantzak eta
Telleriak "Santo Unanue eta
Telleriak" ibili ziren orakuten".
Gero, 1982an dantza betetako-
a ere badu, Josu Agirretxerren
ei gero zitzaten omenaldia pres-
tazeko etsegiaren finakitu zuten
izandako aldiaketei esker zabalt-
du eta indartu egin da. Gaur
egun, haur gazte eta helduek
dantzaizten dute, neska eta muti-
lek, San Pedro jaietako kideali
garantizitu bihurtu da eta jada
baterari egin zuten urte
askotako parentesi eta etenak
alabera utzi dira. Azken urte-
otan, indarra hartu, eta urterio
urtetako dantzetan da bi aldiriz,
Santa Ana eta San Pedrotan.

Orriako dantza da, baina, ez
da betakoa. beran sortua. Bru-
net elia enpresara Bergara aldeki
etorritako lagunek ekarri zutela
uste baita, baina berriar auzoan
uste herriak bere berriar auzoan
aitortu da. Takunek Mailu
Aurtunen iritziz, "Lasarte-Oria
bere leuea duen gauza gutuene-
taria da. Nik albor bat kontsi-
deratzen dut, zahidun beharoko
ondasun kulturala eta gure esku-
tuna dagoena egiten saiatuko
gara." Josu Agirretxe ere bat egiti-
ten gauzak, urteki urtera,
azkenen tradizio birtuetan dira.
Gauza askorekin gertatzen da
hori, eta Lasarte-Oria soziologi-

transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,

transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,

transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,
eta Lasarte-Oria soziologi-
transformismoa kutsua ere badu,



Irudian izakio Sorgin Dantzako zortzirotena osatu zuten kideak antolatzaile eta laguntzaileekin.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

Bergaratik ekarria
Orriako Sorgin Dantzaren Lagu-
nak Kultur Elkartean 1997an
agitaratu zuten liburuari 1488
Orian zabaldu zen Brunet
sorearen mendeurrenara bitar-

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

Aurtengo berrikuntzak

ak dantzak jantziak erabili izan
elkarrekin eta Takuen elkarrekin
erabaki zuten arropa berria Uda-
ni eskatzea bat helduuntzako
baita gazteentzako ere.
Kris garatzen gaudenean, ezin-
beraz aurtengo gazteboena eggingo
da eta daitoren urtean helduena.
Gazteboen zortzirotena
LHS eta 6koak eta DBH1 eta
2koak izango dira zortzikotea
zuten prentsaurrekoan aurreratuko
zuten.

Jantzi berriak
Arropa berriak da Udaleraren
laguntza. Orain artean, Felix
Telleria eta Ekizet dantza talde-

zortzi dantzari helduek eta
hauen aitazek beste dantzari
guziak.

Erreleboa
Gazteboei garrantzia emateko
asmoz sortu da bigarren zortzi-
rotena. Mailu Anitri adierazi
digunez: "aldaketa honek beste
helburu bat ere badauka, aurrera
begira helduen zortzikoterako
dantzariak sortzea. Hauen izan-
go baltza gutxi gorabehera
ordubetea, ekainaren 8an
Ez da dudarik oraingoz erre-
leboa ziurtuta dagoenik. Urtero
urtero handitu da parte hartza-
leen kopurua, iaz 200 baino
gehiago ziren, aurreko urtean
baino 80 gehiago eta momentu
ez dauka muga edo toperik."

zortzi dantzari helduek eta
hauen aitazek beste dantzari
guziak.

zortzi dantzari helduek eta
hauen aitazek beste dantzari
guziak.

zortzi dantzari helduek eta
hauen aitazek beste dantzari
guziak.

zortzi dantzari helduek eta
hauen aitazek beste dantzari
guziak.



Irudian izakio Sorgin Dantzako zortzirotena osatu zuten kideak antolatzaile eta laguntzaileekin.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

Bergaratik ekarria
Orriako Sorgin Dantzaren Lagu-
nak Kultur Elkartean 1997an
agitaratu zuten liburuari 1488
Orian zabaldu zen Brunet
sorearen mendeurrenara bitar-

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.

zen Orriako Sorgin Dantzaren
Lagunak kultur elkartea, dantza
defendatzen. Elkartek horek Sor-
gin Dantzari buruzko liburu
agitaratu zuten 1997. urtean.
Bergararen berzisa izango da Sorgin
Dantzako partaide batzuentzat,
Xabier Bardaji, Orriako Sorgin
Dantzaren Lagunak Kultur Elkar-
teko kide eta dantzari buruzko
libururaren egileetako bat aipari-
ren hasieran hil zen eta.



1919koa da sorgin jaiari buruz gordetzen den argazkiri zaharrena. Liburuan argitaratua da. Oría bertan ateratzea da: hori, 1918tik, 1932a buruzagi izan zen Laureano Unanue ageri da gidari.

Zumaburu kalea berriro itxiko da Ola kale ondotik

Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko interzeptore orokorreko lanak direla eta, astelehenetik aurrera Zumaburu kalea itxita egongo da, Ola kalearekin elkartzen den tokitik Isla plazako lurpeko parkingeko ibilgailuen irteera arte.

Modu honetan asfaltatze lanak aurrera eramanez ahaliko dira, gutxi gorabehera astebe- tez luzatuko direnak.

Zirkulazioa

Zirkulazioa Ganbo Kaletik

desbideratuko da, gero Zumaburu Kalera sartzeko, moztutako zatia behin pasatuta.

Lurpeko parkingeko sarre- ra-irteerak oraingo irteerako arrapatatik egingo da. Horre- gatik, bi semaforo ipiniko dira zirkulazio horiek antolatuko.

Gainera, aparkalekuak prestatuko dira Ganbo kalea- ren alde banatan, aldi batez ezeztatuko diren ordezkoak.

Proiektua

Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako

proiektua da. Garrantzi bere- ziko lana izango da udalerria- rentzat. Honi esker, Loiolako araztegiarekin konektatuko da eta, ondorioz, Oria ibaira ez da isurketarik egingo.

Herritarrei ahalik eta gut- xiena jasanarazteko eta irten- bideak emateko, lau fase independentetan ekiten ari da proiektua.

Era berean, alkatezak bar- kamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izan- go duelakoan dago. •



Jende ugari bildu zen 8. Antzerki eta Dantza Asteko azken emanaldian.

Antzerki eta Dantza Astea amaitu da

Ostiralean, era paregabea eman zitzaion amaiera 8. Antzerki eta Dantza Asteari.

Lehenik, *A ze kuadrilla amonak eta hila!* laburmetraia ikusi zen. Ostean, 20/Klown- kidetza emanaldiaz disfrutat- zeko aukera izan zen.

Haurrak ere ederki


Astean zehar, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxe- ko maila ezberdinetako haur eta gazteek eskaintako an- tzerkiak ikusteko aukera egon da egunero kultur etxean.

Antolatzaileek eskerrak

eman nahi diete Antzerki eta Dantza Astearen parte hartu duten guztiei eta batez ere emanaldiak ikustera gerturatu diren herritarrei.

Dantzaz blai

Gainera gogora arazi nahi dute, *Dantzaz blai* ikuskizun egunean, kulturetxera sartu ezinik geratu ziren herritarrek berriro hau ikusteko aukera izango dutela, izan ere, Zabaleta auzoko jaietan eskainiko dute berriro emanaldia ostiral iluntzean, ekainaren 4an, 23:30ean. •



Erreka-garbiketa Aste berdearen barruan

Lasarte-Oriako Udalak URA ur agendiaren laguntza, Aste Berdea 2010 antolatu du.

Zaindu maite duzun ura lema du ingurumen kanpai- nak eta ekainaren 5ean ospat- zen den Mundu mailako Ingurumen eguna ospatzeko antolatu dute.

Postalak eta iradokizunak

Kanpainaren bidez, ura onda- sun mugatua dela eta uraren arazoizko kontsumoa egitea beharrezkoa dela ohartarazi nahi dituzte herritarrak.

Horretarako, postal sorta bat banatuko da postontzi guztietan. Argazkietan, gure herriko ur-ingurune batzuk azalduko dira, esate baterako, Atsobakarreko hezegunea edo Oria ibaiko Faunaren behatokia.

Postalen atzealdea, Lasar- te-Oriako herritarrek uraren gaiaren inguruan Udalar- i zuzendu nahi dizkioten ira- dokizun eta proposamenak jasotzeko erabiliko da.

Erreka-garbiketa

Bestalde, kanpainako jardue- ra nagusietao bat, ekainaren 4rako prestatu da, Basotxoko eta Oztaran erreken garbiketa herrikoia izango da hain zuzen ere.

Elkartze-gunea San Pedro parrokia izango da. Irteera- ordua, 9:15ak eta bi orduz garbituko dira errekek.

Hiritar guztiak eta herriko ikastetxeak bereziki daude gonbidatuak parte hartzera. Hala ere, ekimenean parte hartu nahi duten hiritar guz- tiek aurrez izena ematen behar dute 943 670249 tele- fono zenbakira deituz.

Goizeko erreka-garbiketa- ren ondoren, arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara, Infor- mazio Puntu bat zabalduko da Dorre Parkean.

Bertan, erreka-garbiketan bildutako hondakinak erakus- gai jarriko dira eta horixe izango da hiritarren ideiekin betetako postalak uzteko unea eta lekua. •



Larunbat gauean 100 lagunentzako afaria zerbitzatu zuten Xirimirin.

Arg.:Txema Valles.

Garagardo azoka Xirimirin

Jende ugari bildu da Xirimirin ospatutako Garagardo azokaren lehenengo edizioan. Ostiraletik hasita, eta atzo igande arte, ukondoaz, saltxitxaz, oilasko hegalez eta patata bizietaz disfrutatzen auzokariek ederra eskaini diete hurbildutako guztiei. Jatekoaz aparte, garagardoa dastatzeko aukera paregabea ere bazegoen, noski. Xirimiri tabernatik pasa direnak gustura atera dira bertan dastatuta- ko janari eta edariekin.

Ostiralean 80 bat afari eman zituzten eta larunbatean 100 inguru. Zifra politik lehenengo edi- zioa izateko. Antolatzaileak kontent daude Garagardo Azokak izan duen harreragatik. •

Egunero

Erakusketa

JUAN MARI CEREZO, herriko musikari zenaren omenez argazki erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgin, egun osoan.



Astelehena, 31

Zinea

CON EL AGUA AL CUELLO, R.I.P.SOL, CONTRAJUNTA 2007 eta QUIERO SER TORTILLA filmak eskainiko dira Osina elkarteak, Ekologistak Martxan taldearekin batera antolatutako ekozinemaldian. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan.

Astearte, 8

Hitzaldia

ZIGORTZEA BEHARREZKOA AL DA HEZTEKO? hitzaldia eskainiko du Enkarni Gomezek Udala-ren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.



Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia kulturetxean

BULARREKO MINBIZIAREN INGURUKO ESPLOZAZIO, TRATAMENDU ETA PREBENTZIOARI buruzko hitzaldia emango du M^h Jesus Mitxelena doktoreak eta Txaro Beobidek, Katxalin elkarteak lehendakariak.

Ekainaren 3an
KULTURETXEAN 18:00ETAN

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!



Oharrak

Herrera de la Mancha-ra martxa

Buruntzaldea eta Oarsoaldeko presoan aldeko kolektiboek Herrera de la Mancha espetxera martxa antolatu dute ekainaren 5erako. Autobusak Hernanitik aterako dira eta hauetan apuntatzeko, ekainaren 4a baino lehen, Xirimiri elkartera hurbildu eta izena eman behar dute interesatuek.

Txakurak lasai askatzeko parkea

Hainbat herritarrek udalari proposamen bat luzatu diote txakurrek bere beharrak egiteko eta lasai askatu ahal izateko parke bat egokitu dezan. Horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Interesa duzuenok Lasarte Albaitaritzako klinikan, Zoomania dendan, Buenetxea tabernan eta Akeita tabernan dituzue orriak sinatzeko.

Txalaparta Munteri-AEKn

Muntteri-AEK euskaltegiak

ikasleei gogora arazi nahi die asteartean, hilaren 1ean, txalaparta tailerra izango dutela. Hiru saio egingo dira, 09:30ean, 16:30ean eta 18:30ean Haritz Iparragirre eta Tomas Arrutiren eskutik.

Adierazi EH-ren aurkezpena

Adierazi EH ezagutarazteko eta Euskaldunako adierazpena jendarteratzeko ekimen herritarra egingo da datorren ekainaren 3an, ostegunarekin, Hernanin egingo dugu, arratsaldeko 19:30ean Biteri kultur etxean. Musika, antzerkia, dantza, argia, irudiak eta batez ere, hitzaren bidez eskubideen eta askatasun politikoaren balioa lau haizetara zabalduko dute.

Txokotako gurasoentzako bilerak

Udako Txokotan parte hartuko duten haurren gurasoen-tzako bilerak ekainaren izango dira. 2005 eta 2007 bitartean jaiotako bilerak ekainaren 10 izan-

go da, 17:00etan euskaraz eta 17:45ean gaztelaniaz. 2002 eta 2004 bitartean jaiotakoek ekainaren 10ean dute ere, 18:30ean euskaraz eta 19:15ean gaztelaniaz. 1998 eta 2001 bitartean jaiotakoek berriz, ekainaren 11n dute bilerak, 17:00etan euskaraz eta 17:30ean gaztelaniaz. Abuzturako izena eman dutenek berriz, ekainaren 11n arratsaldeko 19:00etan dute bilerak.

Batxilergoko titulua

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek, batxilergo titulua jaso ditzaaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Zabaletako Jaiak

Astearte, 1

18:00 HAURENTZAKO JOLASAK egingo dira eta ondoren JAPONIAR BONBAK egongo dira.

Asteazkena, 2

18:00 ANTZERKIA egingo dute eta ondoren JAPONIAR BONBAK egongo dira, 18:00etatik aurrera.

Osteguna, 3

18:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotsekin "Gora San Fermin" BIDEOKLIPAREN GRABAZIOA eta ondoren JAPONIAR BONBAK.

Ostirala, 4

18:00 ANTZERKIA
18:30 Haurrentzako merienda.
19:00 "TERESA SORGINA"REN JAITSIERA auzoko trikitilarietara.
Ondoren haurrentzat opari zozketa.
21:00 KANTU AFARIA "Montexio" eta "Xumela" abesbatzekin.
23:30 DANTZA GARAIDEAREN emanaldia.
00:00 DANTZALDIA, Trikihots eta Hitzartu taldeekin.

Larunbata, 5

09:00 DIANA
11:30 Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko 3. ESKOBA TXAPELKETA.
15:30 Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko 3. MUS TXAPELKETA.
16:30-19:00 haurrentzako aparra festa
18:30 GALTZAGORRIEI TO, IÑASITO antzerki saioa.
19:30 HERRI KIROLAK heldu eta haurrentzat
23:00 bertso saioa: Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Jon Maia eta Unai Muñoa. Gai jarzailea Andoni Otamendi.
24:00-04:00 GAZTE ROCK GAUA "Sortuz", "Aritz Sound System" eta talde "sorpresa".

Igandea, 6

DENOK BASERRITARREZ JANTZITA

09:00 DIANA eta auzo garbiketako txapelketa
11:00 Landaberri Ikastolako DANTZA SAIOA
13:00 PROBA MISTO NAGUSIA: Tellerigaina-Auzoko Gazteak Larrekoetxe/Ostadar-Erkiye.
14:30 HERRI BAZKARIA, kantu saioarekin.
18:00 TOKA TXAPELKETA
18:00 "ARRABOTS" taldea
20:30 "TERESA SORGINA"RI AGURRA eta azken traka.

Eskutitzak

Auzotik eginak, herri guztiaentzako

Ekaineko lehen egunak iristearekin batera, hemen ditugu Zabaletako jaiak. Jai hauetan nork ez ote du bada galdu burua eta lotsa, jolastu edota goxo goxo etxerako bidea egin? Bada hemen dira auzotik maitasun bereziarekin eginiko jai herrikoiak. Auzo lanaren eredu.

Zabaletako aldapa igo eta bertan mikroaren lagun bigote bat, goxokiak zerutik behera, sorgina parkearen erdian, dantza, bertsoa, umorea, bazkari eta afaria, umeen jolasak eta helduagoen egarria asetzeko kantina.

Zer gehiago behar dugu bada guztiok alai eta pozik igaro dezagun aste osoa? Mila muxu hau antolatzen zabilzaten guztioi. Eta bertara agertzeko deia Lasarte-Oria osoari.

Sorgin Jaiak

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbide elektronikora bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Erketz eta Landaberri dantza taldeek elkarrekin egin zuten goizeko desfilea herrian zehar. Arratsaldean Michelingo frontoian bildu ziren talde guztiak.

Dantzari Txiki eguna euripean

Michelinen egin behar izan zuten arratsaldeko ekitaldia

TXINTXARRI

Atzo, igandean Dantzari Txiki eguna ospatu zen Lasarte-Orian. Urtero bezala, Erketz Dantza Taldeak antolatutako eguna alaia izan zen, kaleak musikaz eta dantzaz bete ziren. Aurtengo edizioan, lau taldek hartu dute parte.

Goizeko hamaiketan eman zitzaion hasiera aurtengo Dantzari Txiki egunari. Goizeko xirimiriak tartea eman zuen, eta Andantza Plazatik irten ziren dantzariak. Bi taldetan osatu zituzten eta goizean zehar herrian zehar ibili ziren.

Herrikoak diren Erketz

Dantza Taldea eta Landaberri ikastolako dantza taldeak herriaren erdigunerantz hartu zuten, Kale Nagusian zehar. Bestaldetik, Errenteriako Ereintza eta Falceseko Makaila taldeek Hipodromo etorbideruntz egin zuten.

Jende ugari, gurasoak gehienbat, ibilbidean zehar lagundu zituzten etxeko dantzari txiki hauek.

Zoritzarrez, desfilea hasi eta gutxira, gure herrian ohikoa den xirimia agertu zen. Baina honek ez zuen festa eta jai giro ederra ilundu. Ondo pasatzea zen helburua, euriarekin edo euririk gabe. Ikasitako guztia erakutsi nahi izan zieten hurbildutakoei.

Energiak berreskuratzen

Desfilea amaitu eta guztiok bazkaltzera. Egunean zehar gastatutako energiak berreskuratuz behar zituzten arratsaldean eskaini behar zuten emanaldirako.

Euriaren eraginez, Andatza Plazan arratsaldeko 17:00etarako aurrikusita zegoen emanaldi bateratua, Michelingo frontoian egin behar izan zuten.

Lasarte-Orian Dantzari Txiki egunean elkartutako dantza taldeek ekitaldi ederra eskaini zieten bertara hurbildu ziren guztiei. Eguraldi txarraren eragina alde batera utzi eta jai giro ederrean pasa zuten arratsaldea. •



Jende ugari bildu zen herriko bi taldeak ikusteko.s



Falceseko Makaila taldeko kideek ere, gogotsu heldu zioten desfileari.



Poz-pozik eman zioten hasiera Errenteriako Ereintza Dantza taldeko kideek.